

Eskuliburu Praktikoa

Lantegi Batuak Fundazioko banakako laguntza planak



Lantegi Batuak

Ehuneko ehun gai

Cien por cien capaces



Lantegi Batuak

Ehuneko ehun gai

Cien por cien capaces

Editorea:

Lantegi Batuak Fundazioa
Txorierri etorbidea, 12.

Desgaitasuna duten pertsonen **lan aukera egokituak** sortzen dizkien **irabazi asmorik gabeko erakunde bat gara**. Bereziki adimen-desgaitasuna duten bizkaitarrekin aritzen gara, haientzako erabateko garapena eta bizi-kalitatea lortzeko asmoz.

Ekimen iraunkor eta lehiakorrek sortu eta kudeatzen ditugu, desgaitasuna duten pertsonen beren gizarteratze eta laneratze prozesuan behar duten laguntza ematen diegu.

2. Edizioa errebisio lana:

Alberto Álvarez Salazar
Lorea Bilbao Olaeta
Estibaliz Díez Díez
Paula Iturbide Rodrigo
Olatz Izarra Olabarria
Desamparados Jabonero del Egido
Ibon López de Muniain Igueregui
Chelo Luengo Martínez
Fernando Martín de Castro
Amaia Martínez Arriaga
Dani Martínez Nieto
Begoña Mata Gorostiza
Eduardo Mila López
Ikerne Muñoz Zamalloa
Alain Polo Díaz de Basurto
Coral Viñuela Balado
Biotz Zulueta San Nicolás

A u r k i b i d e a

SARRERA 5

BIZI KALITATEAREN DIMENTSIOAK 7

LAGUNTZAK LANTEGI BATUAK-EN 9

METODOLOGIA 15

**BLP PRESTATZEKO URRATSEN ETA BERE
TRESNEN DESKRIBAPENA 16**

- 1. Hasierako laguntzak – BLP egin aurreko dokumentuak 16**
 - 2. Xede pertsonalei buruzko elkarrizketa 17**
 - 3. BLPren diseinua 19**
 - 4. BLP elkarrizketa erreferentziazko senide edo tutoreekin 21**
 - 5. BLP elkarrizketa erabiltzailearekin 22**
 - 6. BLP abian jartzea 23**
 - 7. Ebaluazioa / Berrikuspena 24**
- Eskema orokorra 26**



Sarrera

Eskuliburu honen helburua da Banakako Laguntzen Planaren (BLP) garapena berrikustea eta eguneratzea.

Aurreko dokumentuak ordezkatzeko dituzte eta ereduaren oinarria diren erreferentzia teoriko nagusiak jasotzen ditu: bizi-kalitatearen dimentsioak eta laguntza pertsonalak, bai eta lanerako metodologiaren eta tresnen aurkezpena ere.

Urteetan zehar, Lantegi Batuak-ek programa eta esku hartze ugari sortu ditu desgaitasuna duten pertsonen garapenari eta sustapenari begira. Lan jardura alderdi nagusizat hartuta, eskusiboa ez den arren, baliabide eta laguntza multzo zabala garatu da pertsonen dimentsio eta alderdi ezberdinetan eragiten dutenak.

Zentzu horretan, **laguntzak** deitzen diegu adimen desgaitasuna, garun kaltea eta buruko gaixotasuna duten pertsonentzako ekintza, programa eta baliabideei, hau da, euren inguruan hobeto moldatzen, ongizatea hobetzen eta xede nahiz asmo pertsonalak lortzen laguntzen dietenak, horrela asebetetze maila handiagoa lortzeko.

Banakako Laguntzen Planak (BLP) aurrerapena ekarri du Lantegi Batuak-en banakako eskaintzan, **erakundeak pertsona bakoitzari ematen dizkion laguntza guztiak batzen baititu**, haren bizi kalitatea hobetzeko.

Beraz, banakako laguntza plana prestatzeko, lehenengo eta behin, bizi kalitatearen dimentsioak eta eman beharreko laguntzak identifikatu behar dira, hau da, **pertsonari begira dagoen plangintzatik** hasi behar da, nahitaez.



Bizi kalitatearen dimentsioak

Lantegi Batuak-en pertsoneri ematen zaizkien banakako laguntzak bizi kalitatearen kontzeptuaren arabera daude egituratuta, bere dimentsio ezberdinetan. Ez da erraza baina, laburbilduz, esan genezake bizi kalitateak bere baitan hartzen dituela beharrian pertsonalak asetzea eta nork bere buruari xedeak jartzeko aukera izatea bizitzako arlo nagusietan. Zentzu horretan, kontzeptu honek zuzenean garamatza pertsonen asmoak eta nahiak erreferentzia gisa hartzera eta autodeterminazioa giltzarri moduan sustatzera.

Lantegi Batuak-en egiten den indibidualizazio prozesuan bizi kalitatea da, bere dimentsio ezberdinetan, pertsona ororen xedeak eta helburuak formulatzeko erreferentzia, eta horiek dira banakako laguntzak abian jartzeko oinarria.

Dimentsio esanguratsuenak lantzeko, gure testuinguruan erreferentzia gehien dituen ereduak hartu dugu abiapuntutzat eta gure errealitateara egokitu dugu.

Ondoren, labur-labur azalduko ditugu dimentsio horiek:

Ongizate fisiko eta materiala

Ondoko gaiekin zerikusia duten alderdiak biltzen ditu: osasun fisiko onean egotea, elikatzeko eta nork bere burua zaintzeko ohitura osasungarriak edukitzea, baita mugikortasunari eta lekualdatzei dagokienez ere, lantokira, komunera eta aldageletara joatea barne. Bestalde, pertsona bizi den ingurunean dauden baldintzak ere jasotzen dira, hala nola ingurune fisikoa, lanaldi mota edo ordutegiak.

Ongizate emozionala

Pertsonaren sentimenduei dagokie: pozik, triste, gustura, urduri edo lasai dagoen... eta zer iritzi duen, batez ere, bere buruaz (autokontzeptua). Dimentsio honetan sartzen da, halaber, pertsonak taldean edo lantokian duen onarpena, irudia eta inklusioa. Lotuta dago osasun mentalekin ere, eta alde ez hain positiboan, portaera arazoekin eta buruko nahasmenduarekin.

Lan garapena

Dimentsio zabala da eta lan giroan egokiago moldatzeko gaitasunak eta ahalmenak hobetzearekin zerikusia duten alderdiak jasotzen ditu. Dimentsioa hau honetan gauzatzen da: lan eginkizun esanguratsuak egitea, lanerako prestatzea, eginkizunak ikastea eta lan ibilbideak garatzea.

Pertsonen arteko harremanak

Dimentsio hau bizi kalitatearen erdi-erdian dago, eta lanean nahiz lanetik kanpo dituzten harreman kopuruari eta kalitateari dagokie. Hor sartzen dira profesionalekin eta lankideekin dituzten harremanak.

Komunitatean parte hartzea eta inklusioa

Dimentsio hau baliabide komunitarioak ezagutu eta erabiltzeari dagokio, eta baita pertsonarentzat esanguratsuak diren jardueretan parte hartzeari ere. Hemen sartzen dugu lanekoak ez diren arloetako prestakuntza ere.

Autodeterminazioa

Norberak bere kabuz erabaki ahal izatea eta nahi dituen gauzak hautatzeko aukera izatea da. Dimentsio honek pertsonak lantokian edo zerbitzuan duen bizitzako hainbat arlori eragiten die, eta gertatzen zaizkion gauzetan eragina izateko aukerari dagokio.

Eskubideak

Giza eskubideak nahiz legezko eskubideak hartzen ditu bere barnean: duintasuna, pribatutasuna eta konfidentziasuna, autonomiarekiko errespetua, informazioa, jasotako prestazioak, eskubideak ezagutu eta defendatzea.

Laguntzak Lantegi Batuak-en

Laguntzak ezartzeko abiapuntua **interesak, xedeak eta bakoitzaren beharrak** dira, eta modu pertsonalizatuan jasotzen dira banakako laguntzen programa batean.

Zenbait laguntza dimentsio ezberdinetan kokatu daitezke aldi berean; nolana ere, azpiko koadroan aurkezten diren laguntzak, Lantegi Batuak-en ematen direnak, gure ustez esanguratsuenak diren bizi kalitatearen dimentsioak kontuan hartuta antolatu ditugu.

Dimentsioak	Laguntzak*
ONGIZATE FISIKO ETA MATERIALA	<p>Ondoko gaiekin zerikusia duten alderdiak biltzen ditu: osasun fisiko onean egotea, elikatzeko eta nork bere burua zaintzeko ohitura osasungarriak edukitzea, baita mugikortasunari eta lekualdatzei dagokienez ere, lantokira, komunera eta aldageletara joatea barne. Bestalde, pertsona bizi den ingurunean dauden baldintzak ere aipatzen dira, hala nola ingurune fisikoa, lanaldi mota edo ordutegiak.</p>
	<ul style="list-style-type: none">▪ Elikadura ohituren kontrola eta jarraipena (alergiak, elikadura nahasmenak, menua egiten laguntzea, jangelako otorduen kontrola...)▪ Lekualdatzeko eta mugikortasunerako laguntza▪ Garbitasunean eta janztean laguntza▪ Osasunaren jarraipena egiteko ekintzak (botikak, pisuaren kontrola, ahoko higiena...)▪ Diruaren eta norbere finantzen maneiurako ekintzak▪ Irakurketa eta idazketa funtzionalarekin eta zenbakien ezagutzarekin lotutako ekintzak▪ Kontsumoaren eta ingurumenaren mantentzearekin zerikusia duten ekintzak▪ Osasun azterketak▪ Lanaldia eta ordutegiak egokitzea▪ Egokitzapen fisikoak eta arkitektonikoak▪ Garraioa▪ Narriadura/zahartze prozesuetan laguntza

9

*Erreferentziatut harturik (AAMR, 1997:131)

ONGIZATE EMOZIONALA

Pertsonaren sentimenduei dagokie: pozik, triste, gustura, urduri edo lasai dagoen... eta zer iritzi duen, batez ere, bere buruaz (autokontzeptua). Dimentsio honetan sartzen da, halaber, pertsonak taldean edo lantokian duen onarpena, irudia eta inklusioa. Lotuta dago osasun mentalarekin ere, eta alde ez hain positiboan, portaera arazoekin eta buruko nahasmenduarekin.

- Autoestimua eta autobalorazioa, zentroan onarpena eta inklusioa sustatzeko ekintzak
- Banakako elkarrizketak: erabiltzaileekin eta bere familia/tutoreekin
- Banakako laguntza emateko esku hartzeak eta jarraipenak
- Gizarte laguntza emateko esku hartzeak eta jarraipenak
- Asebetetze mailaren neurketa

LAN GARAPENA

Dimentsio zabala da eta lan giroan egokiago moldatzeko gaitasunak eta ahalmenak hobetzearekin zerikusia duten alderdiak jasotzen ditu. Dimentsioa hau honetan gauzatzen da: lan eginkizun esanguratsuak egitea, lanerako prestatzea, eginkizunak ikastea eta lan ibilbideak garatzea.

- Laneko orientaziorako ekintzak
- Lan jarduera gauzatzea
- Lanpostuen eta eginkizunen jardunaren ebaluazioa
- Lan gaitasun eta trebetasunetan prestakuntza
- Lan segurtasunaren arloan prestakuntza
- Sustapena
- Enplegurako urratsa
- Eginkizun berezietarako prestakuntza eta laguntza ekintzak
- Lanpostuaren egokitzapenerako ekintzak:
 - laguntza produktuak
 - Ergohobe Banaka programa
- Erakundea ezagutu eta bertan integratzeko ekintzak:
 - Harrera plana,
 - bisitak beste zentro batzuetara,
 - bezeroei bisitak, eta abar.
- Enplegu arrunta laguntzarekin
- Enplegu publikoa

PERTSONEN ARTEKO HARREMANAK

Dimentsio hau bizi kalitatearen erdi-erdian dago, eta lanean nahiz lanetik kanpo dituzten harreman kopuruari eta kalitateari dagokie. Hor sartzen dira profesionalekin eta lankideekin dituzten harremanak.

- Zentroan bertan eta lanpostuan harremanekin zerikusia duten alderdiak hobetzeko programa:
 - pertsonen arteko komunikazioa
 - berdinen arteko harremanak, bikote harremanak...
 - generoaren ikuspegia
 - talde lana (saila),
 - harremanak arduradunekin, hezitzailearekin eta abar
- Harreman eta gizarte trebetasunetan prestakuntza ekintzak (talde dinamikak...)
- Parte hartzea eta komunikazioa sustatzeko ekintzak (batzar orokorrak eta sailekoak, aldizkaria, Intraneta, irratia, lantaldeak...)
- Komunikaziorako laguntza teknikoak

KOMUNITATEAN PARTE HARTZEA ETA INTEGRATZEA

Dimentsio hau baliabide komunitarioak ezagutu eta erabiltzeari dagokio, eta baita pertsonarentzat esanguratsuak diren jardueretan parte hartzeari ere. Hemen sartzen dugu lanekoak ez diren arloetako prestakuntza ere.

- Komunitatearen zerbitzuak eta ekipamenduak ezagutu eta erabiltzeko eta haietan ondo moldatzeko ekintzak: dendak, bankuak, museoak, kultur etxeak, kiroldegia, aisialdi zentroak, administrazio publikoak, KZgune eta Kontsumobide prestakuntza gelak, liburutegiak eta abar
- Komunitatearen barneko mugikortasuna hobetzeko ekintzak (Barik, hileroko bonuak, tiketak...)
- Gizarte zerbitzuak, osasun zerbitzuak (elkartek eta bestelako gizarte zerbitzuak, anbulatorioa, ospitalea, 112, larrialdiak eta abar) eta beste baliabide eta laguntza batzuk ezagutzeko ekintzak
- Aisialdi zentroen eta espazioen ezagutza eta erabilpena
- Aisialdia kudeatzeko programak
- Teknologia berrietara sarbidea lortu eta horiek erabiltzeko ekintzak: intranet egokitua, foroetan parte hartzea, blogak sortzea, mugikorak erabiltzea
- Lanekoak ez diren beste arlo batzuetan prestakuntza (bide segurtasuna, zerbitzu publikoen erabilera egokia...)

11

AUTODETER- MINAZIOA

Norberak bere kabuz erabaki ahal izatea eta nahi dituen gauzak hautatzeko aukera izatea da. Dimentsio honek pertsonak lantokian edo zerbitzuan duen bizitzako hainbat arlori eragiten die, eta gertatzen zaizkion gauzetan eragina izateko aukerari dagokio.

- Norberaren burua babesteko eta abusu egoeretan, besteak beste, erantzuteko prestakuntza
- Ingurunean parte hartzea sustatzeko programak, genero berdintasuna, autogestio taldeak

ESKUBIDEAK

Giza eskubideak nahiz legezko eskubideak hartzen ditu bere barnean: duintasuna, pribatutasuna eta konfidentzialtasuna, autonomiarekiko errespetua, informazioa, jasotako prestazioak, eskubideak ezagutu eta defendatzea.

- Eskubide eta betebeharrak ezagutzeko ekintzak:
 - EZBko lan hitzarmena
 - Zerbitzu Okupazionalako erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak
- Erabiltzaileari arreta emateko Unitatea erabiltzeko laguntza. (ZO)
- Gizarte arauak eta balioak ulertzeko prestakuntza eta informazio ekintzak.
- Eskubideak babesten eta defendatzen eta laguntzak kudeatzen laguntzea.
- Nomina eta hobaria ezagutzeko ekintzak.
- Kode Etikoa eta betetze unitatea ezagutzeko ekintzak.

12

Horretaz gain, laguntza mota horiek ematerakoan, badira zeharkako alderdi batzuk, hala nola **esku hartzeak**, egokitzapen pertsonal, psikosozial eta familiarerako banan-banako jarduerak, lehen aipatutako edozein arlotan; jarduera horietan familiekin lan egitea eta beste gizarte zerbitzu edo eragile batzuekin koordinatzea ere aurreikusten da.

Azpimarratu beharrekoa da laguntza horiek intentsitate maila ezberdinekin prestatzen direla, pertsona bakoitzaren neurrira eta bizi duen unearen arabera.

Aurreko premisa hori kontuan hartuta, laguntzen intentsitatea ez da berdin egituratzen zerbitzu okupazionalan, enplegurako zentro berezian edo enplegu arruntean. Esate baterako, enplegura hurbildu ahala, arreta gehiago jartzen dugu lan jardueran.

Azkenik, laguntzei dagokienez aipatu behar da banakako laguntza plana **tresna bizia dela**, pertsona bakoitzari ematen zaizkion laguntza inplizituak jasotzen dituen heinean, eta etengabe berrikusten eta atzera elikatzen ari dela. Horregatik, ematen diren laguntza mota guztiek bezala, bilakaera bat izan behar dute pertsona bakoitzak bizitzan dituen aldaketan arabera, eta eraldatu eta berrikuntzak bereganatu behar dituzte pertsona bizi den ingurunean gertatzen diren aldaketak kontuan hartuta.

Laburbilduz, pertsona baten banakako laguntzen planak honakoak hartzen ditu bere baitan:

- pertsonaren helburuak eta interesak,
- profesionalen arabera lortu behar dituen helburuak, dituen premiak kontuan hartuta: banakako prestakuntza helburuak, esku hartzeak, lanpostuaren egokitzea eta beste laguntza batzuk,
- zentroan edo komunitatean egiten diren prestakuntza ekintzak eta beste talde jarduera batzuk,
- profilaren ebaluazioa eta bere ibilbidea.



Metodologia

Ondoren, modu eskematikoan aurkeztuko dugu pertsona baten banakako laguntzen plana prestatzeko eman behar diren pausoak eta zein denboratan egin behar diren.

BLP-ren prestakuntza prozesua

Hasierako laguntzak / BLP egin aurreko dokumentuak

- Hasierako Orientazio txostena
- Ibilbide eta kokapen proposamena
- Profila
- Bizi kalitateari buruzko galderak

Xede Pertsonalen Elkarrizketa

Helburua da pertsonaren xedeak eta interesak antzematea bizi kalitatearen dimentsioetatik abiatuta

- Xedeen Erregistroa
- Aurre fitxa

Ebaluazioa / Berrikuspena

Ebaluazioa, berrikuspena eta proposamen berriak.

BLP abian jartzea

Jarduera ezberdinak burutzen hasten dira

BLPren Diseinua

Profesionalen ekipoaren proposamena ondoko puntuei buruz:

- Xede pertsonalak
- Prestakuntza helburuak
- Esku hartzeak
- Beste laguntza batzuk
- Profilaren berrikuspena
- Banakako ibilbidea
- Orientazioen berrikuspena
- Datu pertsonalen eguneraketa
- Narriatze/zahartze protokoloa

BLP Elkarrizketak

1ª Elkarrizketa erreferentziatzko senide edo tutoreekin
2ª Elkarrizketa erabiltzailearekin
Asebetetzearen neurketa

BLP prestatzeko urratsen eta bere tresnen deskribapena

1. Hasierako laguntzak - BLP egin aurreko dokumentuak

Azalpena:

Horiek dira pertsona batek jasotzen dituen lehenengo laguntzak Lantegi Batuak-en sartzen denean. Hasierako orientabideak eman eta profilaren lehenengo ebaluazio partzial bat egiten da Profilen Metodoaren arabera, harrera elkarrizketan zehar.

Pertsona bat zentro edo zerbitzu batean sartzen denean harrera ekintza ezberdinak egiten dira. Sarrera aurreko harrera da eta bertan oinarritzko informazioa ematen zaio lan eta gizarte garapenaren arloko profesionalen bidez, eta beste harrera operatibo bat ere badago zentroko edo zerbitzuko profesionalak egindakoa.

Pertsona berria zentroan edo zerbitzuan hasi eta handik hiru hilabetera, profil berria egingo zaio eta ZOren erabiltzaileen kasuan, erreferentziatzko familia/tutoreekin lehenengo elkarrizketa egingo da.

16

Dokumentuak:

• **Hasierako Orientazio txostena:**

Familiak erabiltzaileari buruz emandako informazioa jasotzen du, baita orientatzaileek egindako iradokizunak ere. Txosten horretan lanbide ibilbiderako eta erakundean kokatzeko proposamena egiten da, baita prozesu horretan laguntza emateko orientabideak ere.

• **Pertsonaren profila Profilen metodoan oinarrituta:**

Nortzuk esku hartzen dute:

Lehen fase horretan harrera eta orientazio elkarrizketan GALT eta TDPT orientatzaileek hartzen dute parte.

Harreran zentro edo zerbitzuko arduradunek, hezitzaileek, pertsonen laguntzarako teknikariek eta GALTek (Gizarte eta Aholkularitza Laguntzako Teknikariek).

Hasierako hiru hilabeteetako ebaluazioan zentro edo zerbitzuko arduradunek, hezitzaileek eta TDPTek.

Epeak:

Hasierako orientabidea erakundean plaza eskatu ondoren egiten da; harrera, zentroan edo zerbitzuan sartzen denean, eta profilaren bigarren ebaluazioa, zentroan edo zerbitzuan sartu eta handik 3 hilabetera.

Erregistroa:

Lehen fase honetan, orientatzaileek eta GALTek egiten dituzte erregistroak, eta harrera erregistroa zentroko edo zerbitzuko buruaren ardura izaten da, eta hiru hileko elkarrizketaren erregistroa TDPTena.

2. Xede pertsonalei buruzko elkarrizketa

Azalpena:

Xede pertsonalei buruzko elkarrizketan, erabiltzaileen euren hobekuntza asmoak edo nahiak antzematen dira. Zentro edo zerbitzuko testuinguru ezberdinen azterketa abiapuntutzat hartuta egiten da. Elkarrizketa prestatzeko, profesionalak “bizi kalitateari buruzko galderak” izeneko dokumentua erabil dezakete.

Xedeei buruzko elkarrizketa baino lehen pertsonan zentratutako laguntza planen metodologiatik inplementatuak izateko hiru ekintza planteatzen dira, AD eta garun kaltea (buruko gaixotasuna duten pertsonen kasuan baloratu) duten pertsonen ezagutza ahalbidetzarren: aurre fitxa entregatzea, beste ADdP batzuen laguntzarekin Laguntza Planen aurkezpena irakurketa errazean, teknikariekin batera, BLPren informazio, azalpen eta abian jartzeko prozesuan.

Komunikazio muga handiak dituzten pertsonen kasuan baloratu egiten da piktogramen liburu pertsonalizatuak lantzea lan eta komunikazio tresna gisa. Ahal den guztietan pertsonarekin berarekin berrikusiko dira datu pertsonalak eta BLPren diseinura eramango dira egin beharreko aldaketak.

Dokumentuak:

- **Aurre fitxa:**

Bere lehenengo BLP egiten duten pertsonekin erabiltzen da. Oroitarazpen modura erabili ahal izango da beharrezkotzat jotzen denean.

Testuinguru ezberdinak azaldu eta gaur egungo asebetetze maila jasotzen du. Jarraibide hau erabili behar da: "irakurri edo begiratu fitxa hau eta pentsatu zer hobetu nahi duzun zentroan edo zerbitzuan". Dokumentu hau helburuei buruzko lehen elkarrizketa egin baino egun bat lehenago ematen zaio pertsonari.

- **Xedeen erregistroa:**

Dokumentu horretan xede pertsonalak, horiek lortzeko behar diren jarduerak eta bakoitzaren arduraduna agertzen dira.

Bi formatu daude; lehen formatuaren lehenengo orrian elkarrizketan parte hartzen dutenen datuak erregistratzen dira, eta hurrengo fitxetan zentroetako edo zerbitzuetako ohiko testuinguruak ageri dira. Bigarren formatuan galdera sorta bat ageri da, BG duten pertsonengan pentsatua eta baita formatu hori nahiago dutenentzat ere.

- **Bizi kalitateari buruzko galderak:**

Dimentsio eta testuinguru ezberdinak oinarri hartuta pertsonen bizi kalitateari buruko galderak islatzen dira dokumentu honetan.

Nortzuk esku hartzen dute:

Elkarrizketa honetan, erabiltzaileaz gain, pertsonen laguntza teknikariak ere parte hartzen du eta egokia jotzen bada baita hezitzaileak ere.

Epeak:

Erakundeetan sartu berrien kasuan, sartu eta 5. hilabeteetan egingo da. Lehen plan honetatik abiatuta BLP berri bat egin behar da bi urtean behin. Xedeei buruzko elkarrizketaren eta BLPren Diseinuaren artean ez da komeni hilabete bat baino gehiago igarotzea.

Erregistroa:

Sislaneko erregistroa pertsonen laguntza teknikariak egiten du ondoko esku hartzean: “Xedeei buruzko elkarrizketa”.

Erregistroarekin batera “xedearen erregistroa” dokumentua gehituko da, pertsonarekin itzulketa elkarrizketa egin ondoren beteko dena.

3. BLPren diseinua

Azalpena:

Bilera honetan pertsonak berak identifikatu dituen xedeak, prestakuntza helburuak eta hobekuntza arloak nahiz prestakuntza beharrak edo profesionalak antzeman dituzten bestelako premiak bateratzen dira, baita bere profila eta ibilbide profesionala ere.

Hau da, profesional ezberdinek pertsonari buruz duten ezagutza partekatzen da.

Narriadura/zahartze sintomen antzemate goiztiarraren protokoloaren aplikazioa.

Orientazio eta datu pertsonalen berrikuspena.

Iritzi bateratze horren helburua da burutu beharreko ekintzak ezartzea, laguntzen plana gauzatu ahal izateko; izan ere, bilera horretan zehazten da banakako laguntza plana. BLP indarrean dagoen urte bakoitzean inplementatu beharreko xedeak, helburuak eta laguntzak definituz.

Era berean, adostu da nortzuk diren BLPren elkarrizketan senide edo tutoreekin parte hartuko duten profesionalak.

BLPren lehenengo diseinua ez bada, xedearen betetze maila aztertzen da, jarraipena, aldaketa edo eguneraketa behar duten xede, helburu edo laguntzak baloratuz.

Dokumentuak:

- **Profilen metodoa**
- **Xedeen erregistroa**
- **Banakako prestakuntza helburuak**
- **Esku hartzeak Sislan-en**
- **Narriadura/zahartze sintomen antzemate goiztiarraren protokoloa**
- **BLPren diseinuan aztertu beharreko gaien zerrenda**
- **Orientazioak eta datu pertsonalak, pertsonen laguntza teknikariek berrikusitako datu pertsonalen fitxa aurkeztuko dute, eta TDPTak arduratuko dira orientazioen berrikuspenaz.**
- **Beste Laguntza batzuk**
- **Sislaneko BLPren xede eta jardueren erregistrorako gida dokumentua**

Diseinu honetatik eta Sislanen informazioa sartu ondoren (xedeak, helburuak, profila, beste laguntza batzuk...), BLP Txostena lortzen da.

Nortzuk esku hartzen dute:

BLPren diseinuan honako pertsonak parte hartuko dute: Pertsona laguntzeko teknikaria, zentro edo zerbitzuko arduraduna, monitorea edo brigada arduraduna.

Epeak:

Pertsona hori zentroan edo zerbitzuan sartu eta 6 hilabeteko epea baino lehenago egiten da, edo bi urterik behin, eta komenigarria da xedeei buruzko elkarrizketatik hilabete baino gehiago ez pasatzea.

Erregistroa:

TDPTk Sislanen erregistratzen du "BLPren diseinua" izeneko esku hartzea eta garapen soziolaboraletik helburuak eta beste laguntza batzuk.

Pertsonen laguntza teknikariak Sislanen erregistratzen ditu xedeak.

4. BLP elkarrizketa erreferentziazko senide edo tutoreekin

Azalpena:

Familiarekin edo tutoreekin bilera bat egiten da xede pertsonalak, banakako prestakuntza helburuak eta beste laguntza batzuk nola landuko diren elkarrekin aztertzeko; horrekin batera, lortutako profilaren maila eta aurreikusitako ibilbidea jakinarazten zaie. BLPren informazioa emateko BLP txostena erabiliko da.

Egokitzat joz gero eta pertsonarekin berarekin adostu ondoren, familiak proposatzen dituen xede berriak eta beste lan arlo batzuk zehaztu daitezke.

Itzulketak elkarrizketa honetan azaltzen da laguntzen plana, eta familiaren edo tutoreen asebetetze maila neurtzen da.

Lehenengo BLP ez bada, xede, helburu eta beste laguntza batzuen betetze mailaren berri emango da, eta horretarako indarrean dagoen txostenaren aurreko BLP txostena erabili ahal izango da.

BLP txostena familiei edo tutoreei eman dakieke, horrela eskatzen badute, bi urtetik behin.

21

Dokumentuak:

- **BLP txostena**
- **Erreferentziazko senide edo tutorearekin egiten den elkarrizketarako gidoi orientagarria**
- **Irizpideak bateratzeko gida erreferentziazko senide edo tutorearekin elkarrizketak egiteko**

Nortzuk esku hartzen dute:

Bilera horretan parte hartzen dutenak: familiaz edo erreferentziazko tutoreaz gain, zentroko edo zerbitzuko arduraduna, pertsonen laguntza teknikaria, eta, batzuetan TDPTa.

BLPren lehenengo elkarrizketa izanik, Zerbitzu Okupazionalako edo Enplegu Zentro Bereziko probaldiaren amaierarekin bat etorriz, zentro edo zerbitzuko arduradunak eta laguntza teknikariak parte hartuko dute.

Epeak:

BLP diseinatzeko bilera egiten denetik 30 eguneko epean egingo da, gehienez ere.

Erregistroa:

Sislaneko erregistroa pertsonen laguntza teknikariak edo TDPTak egiten du ondoko esku hartzean: “BLP elkarrizketa familiarekin”.

Erregistroarekin batera, erreferentziazko senide edo tutoreen asebetetze maila bete beharko da.

5. BLP Elkarrizketa erabiltzailearekin

Azalpena:

Bilera bat egiten da erabiltzailearekin xede pertsonalak, banakako prestakuntza helburuak eta urtean zehar landuko diren beste laguntza batzuk elkarrekin aztertzeko; horrekin batera, lortutako profilaren maila jakinarazten zaio.

Itzulketa elkarrizketa hau xedeen elkarrizketa egiten den gune berean egitea gomendatzen da, eta bertan laguntzen berri ematen zaio eta erabiltzailearen asebetetze mailaren neurketa egiten da.

Lehenengo BLP ez bada, xede, helburu eta beste laguntza batzuen betetze mailaren berri emango da.

Dokumentuak:

- **BLP txostena**
- **Erabiltzaileekin elkarrizketa egiteko gidoi orientagarria**

Nortzuk esku hartzen dute:

Bilera horretan parte hartzen dutenak: erabiltzaileaz gain, pertsonen laguntza teknikaria eta zentroko edo zerbitzuko arduraduna, eta batzuetan TDPTa.

Epeak:

BLP diseinatzeko bilera egiten denetik 30 eguneko epean egingo da, gehienez ere.

Erregistroa:

Sislaneko erregistroa pertsonen laguntza teknikariak edo TDPTak egiten du ondoko esku hartzean: “BLP elkarrizketa erabiltzailearekin”.

Erregistroarekin batera, pertsonaren asebetetze maila bete beharko da.

Erabiltzailearekin elkarrizketa amaitu ondoren, pertsonen laguntza teknikariak gida honen 2, 3, 4 eta 5. puntuetan lantresna gisa erabili den “xedearen erregistroa” dokumentua eskaneatuta erantsiko du “xedearen elkarrizketa” erregistroan.

6. BLP abian jartzea

23

Azalpena:

Xede pertsonalak eta adostutako prestakuntza helburuak lortzeko finkatu diren jarduera guztiak, eta BLP diseinatzerakoan edo erabiltzaileekin nahiz familia edo tutoreekin izandako BLP elkarrizketetan agertu diren beste esku hartze edo ekintza batzuk abiaraztea da.

Nortzuk esku hartzen dute:

Pertsonen laguntza teknikariaren, hezitzailearen eta zentro edo zerbitzuko arduradunaren esku dago jarraipena.

Epeak:

Aurreikusitako laguntzak martxan jartzeko, lehenik, familiari jakinarazi behar zaio, eta 30 eguneko epea dago, gehienez ere, erabiltzailearekin eta familiarekin BLP elkarrizketa egin zenetik.

7. Ebaluazioa/Berrikuspena

Azalpena:

Laguntzen Plana ebaluatzen eta berrikusten denean, aztertu eta baloratu egiten da zenbateraino lortu diren xedeak eta banakako prestakuntza helburuak, eta, oro har, urtean zehar pertsonak jaso dituzten laguntza guztiak.

Dokumentuak:

- **BLP txostena**
- **Xedeen elkarrizketaren erregistroa**
- **Banakako prestakuntza helburuak**
- **Beste laguntza batzuen dokumentuak**

Nortzuk esku hartzen dute:

Xedeen ebaluazioa pertsonen laguntza teknikariak eta pertsonak berak egingo dute.

Banakako prestakuntza helburuen ebaluazioa zentroko edo zerbitzuko arduradunak, hezitzaileak edo pertsonen laguntza teknikariak eta TDPTak egingo dute.

Beste laguntzen ebaluazioa zentroko edo zerbitzuko arduradunak egingo du, edo egokitzen jotzen den beste norbaitek.

Epeak:

Xedeen eta banakako prestakuntza helburuen ebaluazioa, bai eta beste arlo batzuen ere, gauzak burutu ahala edo urte amaieran egingo da; nolahi ere, tarteko balorazio bat egingo da ekainean.

Urte amaieran, urtean zehar landutako xedeak eta banakako prestakuntza helburuak ebaluatuko dira.

BLP prozesua bi urtekoa denez, urtebete egin ondoren aztertu egingo dira xedeak eta prestakuntza helburuak, burutu gabe gelditu diren xede, helburu eta laguntza berriak abian jarriko dira, eta horiek ere ebaluatu egin beharko dira urte horren bukaeran.

Ekintza berriak edozein unetan ezar daitezke: xedeak, helburuak eta abar, eta dagokion TDPTarekin edo zentroko edo zerbitzuko buruarekin adostuko dira.

Bi urte pasatu ondoren, berriz hasiko da prozesua: xede pertsonalei buruzko elkarrizketa, BLPren diseinua, BLP elkarrizketa familiarekin eta BLP elkarrizketa erabiltzailearekin. Aurreko BLP erabiliko da oinarrizko dokumentu gisa. Prozesu hori urtero egingo da adimen desgaitasuna, garuneko kaltea edo buru nahasmendua duten pertsonen %50ekin.

Erregistroa:

Sislaneko erregistroa ondoren zehazten den eran egingo da:

- Xedeak: Pertsonen Laguntza Teknikaria
- Banakako prestakuntza helburuak: TDPT
- Beste laguntza batzuk: Garapen Soziolaborala

Fasea

HASIERAKO LAGUNTZAK

Azalpena

Horiek dira pertsona batek jasotzen dituen lehenengo laguntzak Lantegi Batuak-en sartzen denean.

Hasierako orientabideak eman eta profilaren lehenengo ebaluazioa egiten da Profilen Metodoaren arabera.

Sartu eta hiru hilabetera, lehenengo profil osoa egiten da eta Zerbitzu Okupazionalen lehenengo elkarrizketa bat egiten zaio probaldiaren balorazioarako.

Epeak

> **Hasierako Orientazioa:** erakundearen plaza eskatzean egiten da.

> **Harrera:** zentroan edo zerbitzuan sartu aurretik egiten da.

> **Harrera Operatiboa:** zentroan edo zerbitzuan sartzean egiten da.

> **Profilaren ebaluazioa:** hasierako orientazioaren unean profilaren balorazio partzial bat egiten da.

> **Tailerrean edo zerbitzuan sartu eta hantzik 3 hilabetera** profil osoa egiten da.

Helburuak edo interes pertsonalak antzematen diren elkarrizketa.

Parte hartzaileak

> Orientatzaileak.
> Erabiltzailea.
> Familia edo tutoreak.
> GALT > TDPT.

> Zentroko edo Zerbitzuko arduraduna.
> Hezitzailea.
> Erabiltzailea.
> GALT.
> Pertsonen laguntza teknikaria.

> Zentroko edo zerbitzuko arduraduna.
> TDPT.
> Hezitzailea.
> Erabiltzailea.

> Erabiltzailea.
> Pertsonen laguntza teknikaria.
> Hezitzailea. (egokitzat jotzen bada).

Dokumentuak

> Hasierako orientazioa.
> Profila.

> Harrera erregistroa.
> Harrerako dokumentazioa.

> Profila.

> Aurre fitxa.
> Xedeen erregistroa.
> Bizi kalitateari buruzko galderak.

Oharrak

Fase honetan, orientatzaileek eta TDPTek egiten dute Sislaneko erregistroa.

Harrera erregistroa zentro edo zerbitzuko arduradunaren erantzukizuna da.

TDPTk egiten ditu profilaren ebaluazioaren erregistroak eta probaldiko (3 hilabete) elkarrizketa.

Sislaneko erregistroa pertsonen laguntza teknikariak egiten du ondoko esku hartzean: “Xedeei buruzko elkarrizketa”.

Erregistroarekin batera “xedearen erregistroa” dokumentua gehituko da, pertsonarekin itzulketan elkarrizketa egiten ondoren beteko dena (BLP elkarrizketa erabiltzailearekin).

XEDE PERTSONALEI BURUZKO ELKARRIZKETA

Fasea

Azalpena

Profesionalen taldeak egiten duen bilera pertsona bakoitzaren laguntzen plana definitzeko, abiapuntu hauen arabera:

- Xede pertsonalak (xedeek elkarrizketan planteatutakoak)
- Banakako pres-takuntza helburuak (profesional guztien eta bereziki hezitzaileen ekarpenak)
- Esku hartzeak eta beste laguntza batzuk (profesional ezberdinen ekarpenak)
- Profila eta ibilbidea (Profilen metodoan oinarrituta)
- Bizi kalitateari buruzko galderak (xedeek elkarrizketan planteatutakoak)

Gainera, epeak eta aurrera eramateko arduradunak finkatzen dira. Parte hartzen duten guztiak ekarpenak egin behar dituzte BLPren diseinuan.

Epeak

Petsona tailerrean sartu eta 6 hilabete pasatu baino lehen egiten da, edo bestela bi urtetik behin.

Xedeei buruzko elkarrizketaren eta BLPren diseinurako bileraren artean ez da komeni hilabete bat baino gehiago igarotzea.

Parte hartzaileak

- > TDPT.
- > Pertsonen laguntza teknikaria.
- > Hezitzailea.
- > Zentroko - edo zerbitzuko - arduraduna.

Dokumentuak

> Xedeen elkarrizketaren erregistroa.

> Banakako prestakuntza helburuak.

> Profilen metodoa.

> Orientazioak eta datu pertsonalak.

> Beste laguntza batzuk.

> Narriadura/zahartzea antzemateko protokoloa.

> BLPren diseinuan aztertutako beharrekogaien zerrenda.

> Sislanen xedeek erregistroko dokumentu gida.

Oharrak

> TDPTak esku hartzea erregistratzen du: "BLPren diseinua".

> Pertsonen laguntza teknikariak urte horretan landuko diren xedeak erregistratzen ditu Sislanen.

> Banakako prestakuntza helburuak garapen soziolaboraletik erregistratuko dira.

> Gainerako laguntzak ere Garapen soziolaboraletik erregistratuko dira.

> Adostu egiten da zer profesionalak parte hartuko duten familiarekin BLP elkarrizketan.

BLPren
DISEINUA

Fasea

Azalpena

Epeak

Parte hartzaileak

Dokumentuak

Oharrak

Familiarekin edo erreferentziazko tutoreekin bilera bat egiten da xede pertsonalak, banakako prestakuntza helburuak eta beste laguntza batzuk nola landuko diren elkarrekin aztertzeko; horrekin batera, lortutako profilaren maila eta aurreikusitako ibilbidea jakinarazten zaie.

Egokitzat jotzen bada, familiak proposatzen dituen xede berriak eta beste lan arlo batzuk zehaztu daitezke.

Itzulketa elkarrizketa honetan, laguntzen plana azaltzen da eta familia edo tutoreen asebetetze maila neurtzen da.

Bilera bat egiten da erabiltzailearekin xede pertsonalak, banakako prestakuntza helburuak eta urtean zehar landuko diren beste laguntza batzuk elkarrekin aztertzeko; horrekin batera, lortutako maila jakinarazten zaio.

Itzulketa elkarrizketa honetan, laguntzen plana azaltzen da eta erabiltzailearen asebetetze maila neurtzen da.

**BLP
ELKARRIZKETA
FAMILIA
EDO
TUTOREEKIN**

**BLP
ELKARRIZKETA
ERABILTZAI
LEAREKIN**

BLP diseinatzeko bilera egiten denetik, 30 eguneko epean egingo da gehienez ere.
BLP Txostena familiei edo tutoreei eman dakieke, horrela eskatzen badute, bi urtean behin.

BLP diseinatzeko bilera egiten denetik, 30 eguneko epean egingo da gehienez ere.

> Familia, erreferentziazko tutoreak edo beste erreferente instituzional posible batzuk.
> Zentroko edo zerbitzuko arduraduna.
> Pertsonen laguntza teknikaria.
> TDPT (kasu batzuetan).

> Erabiltzailea.
> Pertsonen laguntza teknikaria.
> Zentroko edo zerbitzuko arduraduna.
> TDPT (kasu batzuetan).

> BLP txostena.
> Erreferentziazko senide edo tutoreekin egiten den elkarrizketarako gidoi orientagarria.
> Irizpideak bateratzeko gida erreferentziazko familia edo tutoreekin elkarrizketak egiteko.

> BLP txostena.
> Erabiltzailearekin elkarrizketa egiteko gidoi orientagarria.

> Sislaneko erregistroa pertsonen laguntza teknikiariak egiten du ondoko esku hartzean: "BLP elkarrizketa familiarekin".

> Erregistroarekin batera erreferentziazko familia edo tutoreen asebetetze maila bete behar da.

> Sislaneko erregistroa pertsonen laguntza teknikiariak edo TDPTk egiten du ondoko esku hartzean: "BLP elkarrizketa erabiltzailearekin".

> Erregistroarekin batera, pertsonaren asebetetze maila bete behar da.

> Erabiltzailearekin elkarrizketa amaitu ondoren, pertsonen laguntza teknikiariak "xedearen erregistroa" dokumentua eskaneatuta erantsiko du "xedearen elkarrizketa" erregistroan.

BLP ABIAN JARTZEA

Xede pertsonalak eta adostutako prestakuntza helburuak lortzeko finkatu diren jarduera guztiak, eta BLP diseinatzerakoan edo erabiltzaileekin nahiz familia edo tutoreekin izandako BLP elkarrizketetan agertu diren beste esku hartze edo ekintza batzuk abiaraztea da.

Adostutako jarduerak hilabeteko epean hasi behar dira gehienez ere, erabiltzailearekin eta familiarekin elkarri- zketan egin denez geroztik.

- > Erabiltzailea.
- > Xede pertsonalen, banakako helburuen eta gainerako laguntzen arduradunak.

- > Jarraipena pertsonen laguntza teknikariaren, hezitzailearen eta zentro edo zerbitzuko arduradunaren eta TDP-Tren esku egongo da.

EBALUAZIOA /BERRIKUS- PENA

Pertsona baten Laguntza Plana ebaluatzen eta berri- kusten denean, aztertu eta baloratu egiten da zenba- teraino lortu diren xedeak eta banakako prestakuntza helburuak, eta, oro har, ur- tean zehar pertsonak jasotzen dituzten laguntza guztiak.

Ebaluazioa epeak amaitu ahal da edo urte bukaeran egingo da.

Tarteko berrikuspen bat egingo da ekai- nean.

Urtebeteren ondoren burutzeke geratzen diren xedeak eta pres- takuntza helburuak berrikusiko dira eta berriak ezarriko dira.

- > Erabiltzailea.
- > Pertsonen laguntza teknikaria.
- > Hezitzailea.
- > Zentroko edo zerbitzuko arduraduna.
- > TDP-T.

- > BLP dokumentua.

- > Xedeen erregistroa (lantzeke dauden xedeak berrikusteko balio du).

- > Banakako prestakuntza helburuak.

- > Beste lagun- tza batzuen dokumentua.

- > Beste batzuk.

- > Xedeen ebaluazioa pert- sonen laguntza teknikariak egingo du, eta berak erregis- tratuko du Sislanen.

- > Banakako prestakuntza helburuen ebaluazioa zen- troko edo zerbitzuko ardu- radunak, hezitzaileak edo pertsonen laguntza teknika- riak eta TDP-Tak egingo dute, eta Sislanen erregistratuko dute.

- > Beste laguntza batzuen ebaluazioa horien profesio- nal arduradunak egingo du.